

Errespetuz kontsumitu

◆ Kontsumismoaren urrezko egunetan gogoratu beharrekoa ◆

KONTSUMOIA, KONTSUMITZAILE-
en elkartek, kontsumi-
tzaileen eskubideak, kontsumo-
ari zuzendutako hezkuntza eta
horrelakoak mintzagai direnean
kalitate/prezio erlazioaren
hobekuntza, publizitate engai-
natzailea salatzea eta abar iza-
ten dira elkarrizketaren gunea.

Alabaina, bada kontsumo-
arekin zerikusia duen arlo bat,
apenas gogoan hartu ohi dena
nahiz eta gaur egun ezagunagoa
izan: kontsumoak ingurugiroan
eta gizartean dituen ondorioak.
Kontsumo arduratsu edo kon-
sumo etiko deituriko honi guk
errespetuzko kontsumo deitu
diogu.

Kafe katiluak ezkututzen duena

Zer ezkututzen da plastiko,
paper edo zelofanetan bikainki
paketatutako eta errotulu era-
kargarriez, kontsigna nabarmen-
ez jantzitako produktu baten
barruan? Zein ekoizpen proze-
su iragan ditu kafe katilu soil
batek?

Hori ez da erraza jakiten.
Baina ekoizpen, eraldaketa eta
banaketa prozesuek ingurugi-
roan eta gizartean dauzkaten
azkenburuko eraginak ezagu-
tzea are zailagoa da. Kafe katilu
hori hartzen dugunean ez gara
ohartzuten kafe horren uzta bil-
tzen duten pertsonen 25 pezeta
inguruko soldata (libera bat
edo) jasotzen dutela egunean.
Eta askok ez dakite kafea ekoiz-
ten duten herrietan gosea pasa-
tzen dela eta kafea ekoiztera
behartuta daudela, oinarriko
elikadura beharrak asetzeko
produktuen ordez, nazioarteko
merkatu inposaketaren eta
lurraren banaketa zuzengabea-
ren ondorioz.

Kafea, eskuarki, lurzorua
kalitatez hondatzen duten her-
bizidak eta pestizidak erabiliz
ekoizten da. Kafe gehiena mul-
tinazionalen komertzializatzen
dute, eta etekin gehienak
beraiek zurruputzen dituzte.
Egia esan, kafe katilu batez



gozatzen ari garelarik ez dugu,
zorionez, gauza hauetan pen-
tsatzen, bestela kafealdia
zapuztu egingo litzaziguke eta.

Kontsumo eta bizi ohiturak aldatuz

Nolanahi ere kontsumoia, berez,
gauza positiboa dela pentsatzen
omen dugu. Izan ere, kontsumo-
a geure beharrak betetzea
baita. Baina geure gizarteak
burutzen duen kontsumoaren
kantitate eta kalitateak geure
kontsumoia zalantzan jartzera
behartzen gaitu.

Badakigu ingurugiroaren eta
gizartearen gaur egungo arazo
gehienak merkatu askeko eko-
nomiak sortutako garapen ere-
duaren eta kontsumo ohituren
ondorio direla. Planetaren
baliabideen %80 populazioaren
%20k kontsumitzen duela
gogoan izan behar dugu. Eta gu
geu %20 aberats horren baitan
gaude! Hortaz, planetarekiko
errespetuzko eta justuzko
ikuspuntutik geure kontsumo
eta bizi ohiturak aldatu behar-
ko ditugula argi dago.

Esan dezakezue, baina, pla-
netak dituen arazo itzelak geure
bizimodua aldatuz ez direla

konponduko. Egia da gose,
miseria eta ingurugiro honda-
mendiaren arazo larriak beste
batzuen eskuetan daudela:
enpresa handi, organismo inter-
nazional, politikari eta gober-
nuen eskuetan alegia. Baina
badaude hiru arrazoi nagusi
geure bizimodua eta kontsumi-
tzeko era alda ditzagun.

1. Koherentziatik. Plane-
taren baliabideak modu bidez-
koagoan banatu behar direla
uste badugu, geure buruarekin
hasi behar dugu.

2. Presio metodo bezala.
Produktu kutsatzaileenei edo
politika amoralak dauzkaten
empresei boikota eginez.
Esaterako, Nestlé enpresak
milaka haurren heriotza eragin
du edateko ur egokirik ez zuten
herrietan haur jaioberrientzako
esne-hautsa sartu duelako;
Shell enpresa bere petrolio
ustiaketan aurka Nigeriako
Ogoni herriak zeuzkan eskubi-
deak defendatzen zituzten bede-
ratzi nigeriarren hilketan zehar-
ka inplikaturik dago; eta abar.

**3. Berdintasun soziala bul-
tztatzeaz gain ekologikoagoak
diren produktu eta zerbitzuak
lagundu eta promozionatzega-**

tik. Esaterako, komertzio zuzen
eta solidarioaren aldeko sareek
ekoizpen kostuen araberrako
prezio egonkor eta bidezkoa
eskaintzen diete ekoizleei.

Zure esku egon arren planetak ezin du

Bada lema ekologista bat:
«Nahiz eta zure esku egon, pla-
netak ezin du». Hots, auto bat
erosteko dirua edukita ere,
seguru asko garraio publikoa
gehiago erabili beharko nuke.
Katmandura oporretan joateko
adina diru izanik ere, beharba-
da Bardeetan edo Hondarribian
gehiago gozatuko nuke. Dirua
izanagatik ere, zira honekin
luzaroago jarraitzerik izango
nuke hautsi zaidan kremlera
aldatuko banio...

Kontsumo eta bizi ohitura
asko arau sozialek, modak
edota publizitateak eragindako
ohiturak besterik ez dira. Poza
edari batekin saltzen digute,
gaztetasuna kolonia batekin eta
nortasuna kirol auto batekin.
Gaur inor ez da adabaki batekin
kalera irtetera ausartzen edo
bere sukaldean uhin-labe bat ez
edukitzen. Gauzetara itsatsita
geratzen gara eta geure burutik,
geure jatorritik eta geure ingu-
rutik urrutiratzen gara.

Nolanahi ere, kontua ez da
produktu ekologikoenak dakar-
tzen errezeta liburu bat beti
ondoan edukitzea, baizik eta
kontsumoaren aurrean jarrera
kritikoa hartzea: gauzak behar
ote diren zalantzan jartzea, geu-
regan, gizartean eta ingurugiro-
an izango dituen ondorioak
baloratzea. Imajinazioz eta sor-
menez jokatzeko.

Errudun sentitu beharrik ez
dago. Gizarte honetan bizi gara
eta bertan bizi beharra dauka-
gu... Ardurak atean zain ditu-
gula jakinez.

• Rafa Aldai •

GOMENDIOAK

► Errespetuz kontsumitzeko

1. Behar duzu benetan? Edozer gauza
erosi aurretik benetan behar ote duzun azter-
tu. Askotan tontakeria asko erosten ditugu
gero erabiliko ditugula pentsatuz eta azkene-
an, batera erabili gabe, zakarrontzira botatzen
ditugu etxean luzaroan gordetzeko lekurik ez
dugulako. Izan gertakari horiek gogoan eta
erabili esperientzia hori gaur erosketak egiten
dituzunean.

2. Iraupen luzeko gauzak. Aukerarik bal-
din baduzu iraupen luzeko gauzak erosi.
Hauk hondatzen direnean ez duzu berririk
erosi beharko: konpontzera eraman edo pie-
zaren bat edo beste aldatzearekin beste den-
boraldi bat iraugo dute. Eta material birzikla-
garriz eginikoak badira oraindik hobe, horrela

objektuari bizitza agortzen zaionean materia-
lak bizitza berri bati ekiteko aukera izango
baitu.

3. Planetan pentsatu. Planeta mailako
hondamendia sortzen duten produktuekin adi.
Ahal baduzu saihestu itzazu eta ezinbestean
erabili behar badituzu ahalik eta neurritsuen
erabili.

4. Garapen proiektuak. Hirugarren mun-
duko garapen proiektu lokaletan ekoizten
diren produktuak bilatu eta kontsumitu (kafea,
platanoak...). Garestiagoak diren arren ordain-
duko duzun prezioa bidezkoagoa da ohiko
dendetan topa dezakezuna baino. Gobernu
Kanpoko Erakundeek (GKE) zabaldu ohi
dituzte.

BERRIAK

Klimaren aldaketa

Nazio Batuen Klima
Aldaketaren Gobernu Arteko
Panelak (IPCC) klima aldaketa-
ri buruzko azken txostena aur-
keztu du Erroman. Klimaren
Biblia deituriko honen arabera,
gizakia da arazo klimatikoaren
erantzule nagusia, eta gobernu
guztiei CO2 emisioak berehala
gutxitzen hasteko eskabidea
egiten diete. Txostenean, gas
honen emisioa murrizteko zen-
bait proposamen tekniko egiten
dira, hala nola erregaiak
gutxiago erabiltzea, berogailu
eta automobiletan batez ere.
Bestalde, energia nuklearra
areagotzea gomendatzen da,
bere ekoizpenean eta hondaki-
nen tratamenduan segurtasun
garantiak dauden artean.
IPCCren aburuz, badago eneri-
giaren %10etik %30era bitarte-
an aurreraterik inolako kostu-
rik gabe. Errendimendu maila
minimoak definitzea eta ikatzari
eta energi kontsumoari zergak
ezartzea da txostenean propo-
satzen diren neurri politiko zen-
bait. Txosten honek, klima
aldaketaren erantzukizuna
gizakiari argi eta garbi lepora-
tzen dion arren —bazen
ordua!—, ez ote ditu energia
nuklearraren defendatzaile
sutsuak berrindartuko? Azken
hauk pozik egoteko arrazoirik
behintzat badute.

KANPAINAK

Birziklapena erakusgai

Gipuzkoako Foru Aldundia bir-
ziklapenari buruz egiten ari den
eskola kanpainaren barruan,
erakusketa bat antolatuta dute
Donostiako Alderdi-Ederren.
Material birziklatuz eginiko
jostailuei buruzko erakusketa
hau abenduaren 26tik urtarrila-
ren 4a bitartean egongo da
ikusgai karpa baten barruan.
Datorren astean honi buruzko
informazio gehiago eskainiko
dugu.

ARGITALPENAK

La casa ecológica Michael Allaby.

Mandala Argitaletxea.

Liburu honek gomendio prakti-
koak eskaintzen ditu gure etxe-
ko ingurunean eragin materiala
izan dezaketean jardura eta
produktuez. 1.650 pezeta.